


URTEGIA ZENARI BIRA

LUZERA: 6,5 Km

GAINBEHERA: 70m

ZAILTASUNA: ERRAZA



DESKRIBAPENA:

Ibilbide hau Artikutza auzoan hasten da (315 m). Zure ibilgailuan honaino iristeko, Artikutzara sartzeko baimena eskatu behar da:

<https://www.donostia.eus/info/udalinfo/Tramites.nsf/vTramites/3C487E1573CDFBDCC125814500390C67?OpenDocument&id=D580485&idioma=eus>

Artikutzako auzo edo herrixkako etxeen artean aparkatu eta San Agustin ermitarantz abiatuko gara, aterpetxean amaitzen den hormigoizko pista batetik gora. Gure kasuan, aterpetxera iritsi baino 100 m lehenago, pista utziko dugu. Ezkerreko desbideratzea hartuko dugu, behar bezala seinalizatutako bidegurutze batean. Artikutzako urtegia inguratzen duen pista hartu baino lehen, presa zaharrera hurbil gaitzke, handik, inguruaren ikuspegi apartaz gozatzeko.

Seinaleztatutako bidegurutzera itzuli eta metalezko ataka zeharkatuko dugu. Pista zabal hori jarraitu besterik ez dugu. Pistatik bidezidorren bat edo beste abiatzen da baina beti pista nagusia hartuko dugu eta beti eskuineko aukera.

Harrizko bi zubi txiki zeharkatu ondoren, ibilbidetik urrunen dagoen puntuan kokatuko gara. Hemen urtegiara jaisteko aukera dugu eta 2019ra arte urez beteta egon zen eremutik itzuli. Pistatik jarraitu nahi badugu, urtegia inguratuko dugu Artikutzara itzultzeko.

Lehenengo 500 metroak eta amaiera izan ezik, ibilbide laua da, erraza eta ibiltzeko eroso. Artikutzako basoetako lasaitasunaz gozatzeko aukera emango diguna.

Herriko Ostatu Zahar etxea atsedenleku bezala atonduta dago, vending makina bat dago bertan eta komunak ere bai.

